

# Plaza > Kultura



Zutik, ezkerretik hasita, Ander Lipus, Alex Gerediaga eta Espe Lopez; eserita, Urko Redondo, Mirian K. Martxante, Miren Gaztañaga eta Ainara Gurrutxaga. Ondoan, *Batu* txakurra dute. Luhuson hilabete eman du Antzerkiola Imaginarioak, *Babiloniako loreak* lantzen. NICOLAS MOLLIO

## Luhusotik Babiloniara

Antzerkiola Imaginarioak hilabeteko egonaldia iragan berria du Luhuson, 'Babiloniako loreak' antzezlanaren prestatzen

Konpainiak urriaren 9an estreinatuko du bosgarren obra, *Zornotzan*

**Nora Arbelbide** Luhuso

Beren usaiak aspalditxo jarriak dituztela erakusten dute han eta hemen pausatu hautsontzi betek. Aldageletan ere, lan orenen izerdien aztarnak sendi daitezke. Makillaje, orrazi, esku moldatu eta beste traste anitz, nahas-mahas emanak.

Mementoan, ordea, Antzerkiola Imaginariokoak ez daude hor. Aktore, atrezzo, taula zuzendari, baita *Batu* txakurra ere, aldagelatik bi urratsetara den sala handian elkartuak dira, batzuk taula gainean, besteak bazterrean, denak errepikarako kontzentratuak. Ander Lipus bera, ordenagailuan zertxobait idatzita, eta tita batean oholtzara igaten da. Ohean sartu eta hara non amatxi bilakatzen den. Makillajerik gabe, baina norizan daitekeen asmatzeko ez du lan handirik ematen. Ondoan, Miren Gaztañaga, Hegoa interpretatzen. Takoi zorrotzekin

ibilki, mikrofono haridunarekin publiko irudikatuari hitz egiten. Laster etorri zaie begirada erotua duen gizon beso-luzea, eri bihotzak zeruari so. Ilegorridun bat ondoan, dena errepikatzen. Eta erditik errautsa kentzen eta loreontziak biltzen, neskamea edo.

Sortu bezain laster itzali da mundu berezia, ordea. Eszena bukatu dute. Beste batera pasa aitzin, ohartxo batzuk partekatzen dituzte. *Babiloniako loreak* antzerkia kasik prest dute. Antzerkiola Imaginarioaren bosgarren antzezlan nagusia. Artedramak ekoiztia da. Lau urte pentsatzen eta lan egiten ibili ondoren, uztailearen 9an hasi dute Luhusoko (Lapurdi) egonaldi artistiko hau. Azken eguna zuten atzokoa.

Egonaldia zinezko «pribilegioa» izan da, Ander Lipus obraren taula zuzendari eta aktorearen hitzetan. Egiatzko libertatea ematen duen espazioa izan dute, gutxitan gertatzen dena. Izan ere,

Luhusoko sala berrikitan Harri Xuri-Karrikako Arteen Fabrika bilakatu da. Fabrikak lortu aurrekontuari esker etorri ahal izan dira Luhusoko Antzerkiolakoak; Le Petit Theatre de Pain, Kilikolo Zirko eta Iparaldeko Dantzarien Biltzarrarekin partekatu dute lekua. Trukaketa interesgarria, alde guztietatik, nahiz eta bereziki beren artean eta beren obra prestatzen pasa goiz eta arratsak. Hori bai, Luhusoko lasaitasunak anitz lagundu ditu: «Berezko isiltasuna du lekuak, eta hori oso ona da kontzentratzeko».

Aktoreen artean, Lipus aparte, Espe Lopez, Miren Gaztañaga, Alex Gerediaga eta Mirian K. Martxante daude. Zuzendaritza lanetan laguntzaile, Urko Redondo eta Ainara Gurrutxaga. Guztiek, orain, pausaren tenorea dute. Irail hasieran berriz hartuko dute obra. *Zornotzan* izanen dira orduan (Bizkaia). Lehenik egonaldia, eta ondotik, urriaren 9an, estreinaldia. Baina jadanik franko aitzinatua dute

### ↓ Poema bat abiapuntua

**Beste kantu bat nahiz eta Auschwitz**  
Zergatik ez nion ba itsasoari esango izadiari emango naizenaren ahotsa harresiak jasotzean belardien gainean hodeiek in nahastean haragiaren kea unaman ito zen koblakarien boza baina harresiez haraindi hodeietan barrena kantu eske zirauen munduaren bihotzak historiaren gaua esna eman zuen haurrak ez egotzi niri sarraskiaren lotsa iheslari naiz, bai, hezurrezko kaiolan kantuka nabil gudu zelaien hautsean baina ezinbesteko gudan zauriaren ertzean xerkatzen ari naiz zentzuaren zantzua ez nazatela bila borroeroen azokan ez nauzue entzungo kalakarien ferian isil-isilik noa deitzen nauen habira aditzera joan naiz ahaztuaren hotsa eta arrakalen altxoan zeruari begira ozen entzun nahi dut isilaren oitotza sekulan isilduko ez denaren kantua.

**Jon Gerediaga**

antzerkia. Eszenografia jada egina dute. Testuari dagokionez, orain dela bi urte idatzia zutenaren hamabigarren bertsioan dira. Gidoia Jon Gerediagarena da. Jantziak ere, kasik bukatuak. Sinopsiaren aldetik, horrela labur-

biltzen du aurkezpen testuak: «Hegoak gogora ekartzen ditu bere amona Inesen azken egunak, kantu bat altxatuz Babilona madarikatuan». Esaldi bakarra, baina gai parrasta aipatzeko aitzakia. Heriotza, kantua, mundu ezberdinak, jainko ezberdinak, Herria, Babilonia: «Amona bat ohean sartzen denean, ia bizitzeko gogorik ez duela, ba, hor bada go irudi edo imaginario pila bat. Herri baten tabu eta ezetza hori... Amona honek ez du deus kantatzen. Hegoa iloba haize berriekin



«Imaginario asko sortzen ditu bizitzeko ia gogorik gabe ohean sartzen den amonak»

«Luhuson egonaldia egitea oso gutxitan gertatzen den pribilegio bat da»

**ANDER LIPUS**

Taula zuzendari eta aktorea

dator, kantuak salbatu ahal duela esatera amona honi edo herri honi».

Hortik, obraren abiapuntutzat ukan duten Jon Gerediagaren poemarekin antzerkiak duen lotura. Olerkia *Beste kantu bat nahiz eta Auschwitz* da. Kantatzeak salbatzen ahal gaituela dio, preseski, Lipusek dioenez: «Orain arte gure antzerki obretan beti halako desenkatu bat zegoen. Oraingoa, lore bat bezala irekitzen da obra. Amonak zaldiak ikusten ditu, eta inork ez dio kasurik egiten. Azkenean, zaldiarekin doa dantzan». Poesia ekintza bihurtu nahi dute: «Eta poesiaren arketipo urrunak gure herri, hiri, gure zibilizaziora ekarri».

Olerkiak gain, Ines amonaren istorioak badu zerikusia Lipusek Markinan (Bizkaia) bizitakoarekin, estilizatu duena: «Exagerazio bat da. Baina gertatzen diren kontuak egiazkoak dira. Adibidez, Bo ehorzlea da Ines hiltzea nahi ez duen bakarra. Ez du nahi, orain dela gutxi herriko udaltzaina hil delako. Oso lodia zen. Ines ezin da hil, ez delako sartzen kanposantuan. Nire amona hil eta hilabetera aitia hil zen eta ezin izan zuten hilobi berean sartu. Hori gutzia era tragikomikoa kontatzen dugu». Bi mundu, eta artean, tentsioa: «Lehenengo bizitza, memoria bat, gure amona izango litzatekeena, eta gaur egun bizitzaren aurrean dugun jarrera».

Batzuetan euskaraz, besteetan gaztelaniaz, Bizkaian ezagutu mundu linguistiko erreala bat da: «Obra euskaraz dugu pentsatua, orduan euskaldun batek ulertu beharko luke. Nik ere maskaradetan biarnesez hitz egiten dutenean ez dut ulertzen, baina hori ez litzateke traba bat izan behar».